


ttipi-ttapa

1990eko Apirilak 12

36. zenbakia

dohain banatzen da

ALE BEREZIA



KULTUR BIDEETAN

BERA

Apirilaren 25a, asteazkena:

Zinea: 5etan eta 7etan *"Abenturak eta kalenturak"* eta 9etan *"Ke arteko egunak"* Lanbide Eskolan.

Apirilaren 28a, larunbata:

Txomin Artola eta *Amaia Zubiria* Berako Plazan edo Altzateko frontoian (eguraldiaren arabera). Ordua: gaueko 10,30etan.

Apirilaren 29a, Igandea:

Bertso Saioa Labiaga Ikastolan 12,30etan. Parte hartuko dute Manolo Arozena, Joxe Mari Mujika (Anatx), Bittor Elizagoien eta Joxemiel Argiñarena bertsolariek. Gai jartzailea: Mikel Taberna. Ondotik trikitilariak.

LESAKA

Apirilaren 26a, ortzeguna:

Zinea: 6etan *"Abenturak eta kalenturak"*, 9etan, *"Ke arteko egunak"*

ETXALAR

Apirilaren 22a, Igandea:

Zinea: 5etan *"Abenturak eta kalenturak"* Zentroan.

ARANTZA

Apirilaren 27a, ortzirala:

Zinea: arratsaldeko 2,30etan *"Abenturak eta kalenturak"* Eskolan.

IGANTZI

Apirilaren 20a, ortzirala:

Zinea: arratsaldeko 8etan *"Abenturak eta kalenturak"* Biltokian.

Antolatzaileak: Berako Udala eta

Bortzirietako Euskara Batzordea



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AVRREZKIA**

Publizitaterik onena preziorik ttikienean

MODULO BAT

900 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.

BI MODULO

1.800 Pzta.

non-zer

- 4 **BEHARREZKO TELEFONOAK** Kontsultak, eritetxeak, lineako autobusak, aberiak...
- 5 **AGENDA** Hurrengo alea argitaratu arte, hau da, maiatzaren 9rarte, inguru hauetan gertatuko diren bilera, ospakizun etabarren agenda.
- 6 **IRAKURLEAK MINTZO**
- 7 **HONTAZ ETA HARTAZ**
- 10 ... **ORAINGOA DIFERENTEA DA**
- 25 Herrietako berriak hurrengo aldian izanen ditugu. Oraingoan:
BAPATEKO ELKARRIZKETA IÑAKI PERURENARI
 Mikel
AGOTAK, MARGINATU SOZIALAK Javier Ignacio Querejeta
FERNAN GARZIA: Egurra lantzea, irakaskuntzan aritzea baino gehiago gustatzen zait. Miren Karmele.
JOSUNE ETA AINHOA, nola soinu hala dantza. Patxi Petrirena.
HARMARRIAKINTZA Pio Benedicto de Urrutia
JOXEMARI, MERKETAONA! Joxemai Zuri.
ASTEGUNETAKO IGERITOKIA Cesare Pavese; Joakin Balentziaren itzulpena.
POEMAK Mikel Taberna "Kapi".
IXURNEKO POETA Patziku Perurena.
EGOERA OROKORKI TXAR BATEAN IDATZIRIKOAK
 Gotzone Leonis.
- 28 **ALKOHOLA: DROGA LEGALA** Nafarroako OMT
- 29 **ERAZTUNEN ERRANAHIA** Fermin Altzuguren.
- 30 **MERKATU TTIKIA**
- 31 **DENBORA PASA** Enbido.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Mikel Illarregi, Mikel Taberna "Kapi", Patziku Perurena, Joakin Balentzia, Gotzone Leonis, Manu, Javier Ignacio Querejeta, P. Petrirena, Juainas, F. Altzuguren, Nafarroako O.M.T eta Enbidok.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Tirada: 2.400 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	594300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	587039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	594183
Sunbilla	594283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614444
Nafarroako ospitalea	251500
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	262700
Gurutze Gorria.....	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	594242/594342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leizaran	515018
HIRUGARRENADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630104
ABERIAK:	
Iberduero	594335/594336

GOARDIAKO BOTIKAK

—Apirilaren 14-15ean, Bera Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).




—Apirilaren 21-22an, Arantza, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

—Apirilaren 28-29an, Lesaka, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

—Maiatzaren 1ean, Bera, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).—Maiatzaren 5-6an, Etxalar, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

ERAKUSKETAK

—Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, Fernan Gorostidi-ren Margo erakusketa apirilaren 19rarte.



MEKANOTERAPIA ZENTROA

LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

12 ORTZEGUNA

—Lesakan, gaueko 10,30etan Atxaspi Ostatuan "Speed" taldearen kontzertua.

13 ORTZIRALA

—Lesakan, gaueko 8etan Atxaspi Ostatuan "Ñake Producciones" antzerki taldeak *el undécimo no molestar* obra antzestuko dute eta 10etan, "Kalean" eta "Hugh!!!" taldeak.

14 LARUNBATA

—Lesakan, gaueko 8etan Atxaspi Ostatuan "Ñake Producciones" antzerki taldeak *Fortunato y Jacinto en una de Romanos* eta 10etan, "Zer Arraio" eta "Vomito" taldeak.

Lesaka eta Berako talde batek eginiko margo erakusketa ere izanen da.

—Elizondón, Gau-pasa "Akelarre" taldearekin frontoian. AEKK antolatua.

15 IGANDEA

—Beran, Larun Mendi Taldearen ateraldia Saioara.

—Lesakan, arratsaldean "Atabal" taldearekin musika Plazan.

17 ASTEARTEA

—Donezteben, Malerrekako Osasun Kontseiluaren bilera Doneztebeko Osasun Zentroan arratsaldeko 6,30etan.

19 ORTZEGUNA

—Arantzan, Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza batzordearen bilera arratsaldeko 6etan.

20 ORTZIRALA

—Etxalarren, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7,30etan Zentroan.

22 IGANDEA

—Beran, Larun Mendi Taldearen ateraldia Aritxulegira.

—Elizondón, omenaldia Mariano Izetari. Bazkari herrikoia ere izanen da. Txartela: 1.800 pzta.

—Lesakan, arratsaldean "Arkaitz" taldearekin musika Plazan.

29 IGANDEA

—Beran, Larun Mendi Taldearen ateraldia Txindokira.

—Lesakan, arratsaldean "Minxoriak" taldearekin musika Plazan.

30 ASTELEHENA

—Saran, Gau-Pasa "Zarama" eta "Minxoriak" taldeekin gaueko 10etan Plazan. Antolatzaileak Olain Elkartea eta Sarako Gazte-txea.

4 ORTZIRALA

—Lesakan, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 5etan Herriko Etxean.

8 ASTEARTEA

—Beran, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7etan Herriko Etxean.

10 ORTZEGUNA

—Arantzan, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 5etan Herriko Etxean.



★ KIXKUR ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA



MUSIKA DENDA

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza» Aseguro
mota guztiak

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404 - LESAKA

Erretzaile berri bati

Zuri, 14, 15, 16... urtetako neska-mutilari, posible izanen zen galdera bategitea? Etzazula gaizki hartu, dena da ez dudala konprenitzen, ez da besterik.

Ikusten dizut behatz tartean, bel-dur pixka batekin, zigarro bat estutzen. Ahora eraman, daldarikan nolazpaite sua hurbildu eta kea iretsi. Iduri du keak ez duela zure barnean goxo haundirik utzi prisaka-prisaka berriz kanpora botatzen duzulako, disimulo pittatekin ezta "delatore" bat nolazpaite ixildu nahiaz.

Nik esanen nuen horrek plazer baino gehiago narda ematen dizula, bainan, harrituta ikusten dut berriz lan berdina egiten duzula: zigarroa ahora eraman-kea iretsi-kea botatzula ixildu... eta hola berriz eta berriz. Hori ez duzu gustokoa, Orduan...? Eta hori da nik ulertzen ez dudana. Hori bakarrik.

Ulertzen dut ikusten dudalarik pertsona bat aho guztia zigarro-ke horrekin betetzen duenarik —sagar eder bati atsiki bat eman balio bezalaxe—, gustura iretsi, lasai-lasai begi etsiekin gustua hartu eta azkeneko, patxadan, ahotik eta sudurretik berriz haizetara bidali ke hori. Jende aunitzendakoz momentu horrek ez du parerik. Ulertzen dut ere, kasu batzutan (nerbiostua, haserre, deprimututa) beharrezko dela zigarro xurimehe hori eskutan hartzea, ahora erematea, atsikikatzea behar bada... nolazpaite lasaitzeko momentu hori.

Ulertzen dut ere bai nere inguruan ikusten ditudan erretzaileen kasuren batzuk, erretzea kaltegarria ikusten dutela eta pentsatua dutenak zigarroa uztea edo bedenik guttixea go erre, baina topatzen dira buruak gauza bat esaten duela eta gorputzak beste gauza eskatzen. Nahiko lan dute, eta hori zaila da, edozeinek ulertzen du. Baina zuk zure burua kaka-kalder batean sartzea ez dut

ulertzen —ikusten duzulako bes-teek ere hori egiten dutela ote da?— Ez dut konprenitzen, alde batetik kakak gustu tzarra duelako eta bestaldetik gorputzean hainbeste kaka sartuz azkenean kakeri grabe batekin bizi beharko delako. Nik hala ikusten dut beti. Eskertuko nizuke galderatxo honi erantzun bat emanen baldin bazenio, nere urte aunitzeko duda bat argituko zinuelako.

KORO

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.

ARROPA DENDA




**CERVANTES
HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



**ERLOJU ETA BITXIAK
KONPONKETA TALLERA**
Merkatu karrika
DONEZTEBE



Baztan, Bidasoa eta Male-rrekako etxe, baseri, pisu, bajera, eraikitze lurrak eta eremua duten borden berri ematen da

**Jose Antonio Elizondo
EZKALO**

tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8
DONEZTEBE



EZKONTZAK

Juan Bautista Telletxea Maia eta **M. Begoña Andueza Iriarte** Berakoak biak otsailaren 24ean.

Ignacio Iribarren Elizalde eta **Socorro ...** Iturengoa eta Iruritakoa, martxoaren 31ean.

JAIOTZAK

Fernando Frauka Fagoaga, Berakoa, martxoaren 26an.

Beñat Zabaleta Alduncin, Leitzakoa, martxoaren 14ean.

Jagoba Juanikorena Idiart, Berroetakoa, martxoaren 3an.

Leticia Recarte Mendiburu, Elizondokoa, martxoaren 9an.

Iratxe Labiano Antzizar, Doneztebekoa, martxoaren 28an.

Clara Otermin Leitza, Doneztebekoa, martxoaren 30ean.

HERIOTZAK

Maria Telletxea, Iturenen, martxoaren 24ean, 86 urte.

Jose Bakero Ugalde, Beran, martxoaren 23an, 65 urte.

Jose M. Agirre Eltzaurdia, Beran, martxoaren 12an, 73 urte.

Isabel Telletxea Telletxea, Beran, martxoaren 30ean, 65 urte.

M. Guadalupe Organbide Iribarren, Gartzainen, martxoaren 8an, 58 urte.

Juan Pedro Ezkurra Telletxea, Elizondon, martxoaren 18an.

Bernard Riouspeyrous Anhaux, Arizkunen, martxoaren 15ean.

Felix Aldabe Etxenike, Zigan, martxoaren 21ean.

Leoncio Antxordoki Elorga, Erratzun, martxoaren 21ean.



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa.: 63 05 98
BERA



**ERLOJU ETA BITXIAK
KONPONKETA TALLERRA**

Legia 1, Tfnoa: 63 07 51
BERA

**ARKUPE
GOXOTEGIA**

Tfnoa.: 45 20 21
IRURITA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



SUKALDE ALTZARIAK
Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

**TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK**

**SALMENTA ETA
KONPONKETAK**

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak



Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 59 44 00
DONEZTEBE

Alferrik
zabiltza,
ez bait
daude!!

Honen berri izanen zenuen, bainan... berrien bila zabilta jo ta ke, ezetz!

Hurrengo alea kaleratu arte ez duzu jakinen zure herrian gertatutakoa eta ondoko herrian izandakoa are guttiago!

Zergatik? korrespontsalek bakazio gisako zerbait dutelako.

Izan ere, bereziak aterako genituela hitza emana genuen eta alea bikoizteak zorra haundiegia egingen bait zuen...

erranen digu?

Merkatarien teknikak, ikasi berriak ditugun arteko batean zera erraten bait digu: eskasia artifizialak, produktoaren garestitzea dakarrela eta...

Konturatzen zara orain, *ttipi-ttaparen* berririk gabe duzun hutsuneaz?

Horrelako aldizkari onik munduan ba ote?

Hamar minutuz

Bapateko elkarrizketa Iñaki Perurenari



Sendo, gogor, bortitz eta ia altxa ezina den harri baten atzean izkutaturik gelditzen den gizon honek, izerdi, indarra eta sufrimenduaren gainean jarritz, bera azaldu nahi dugu; bizitzak dituen une, momentu, gogo, asmo, helburu eta sentimenduak azalduz. Egiten duen bezala, goxotasunez jaso gaitu etxeko atarian argia moztuta bait zegoen. Hego haizeak ingurunean dantzatzen zuen bitartean Iñakiren ahots lasaia kasetan sartzen zen.

MIKEL

arratsaldeon, *harri* eta *herri*... Harriak sentimendurik ba al du?

Beno harriari sentimendua eman diezaiokegu. Harria berez, gauza

hotza eta gogorra da. Baina harri berezi bat egin daiteke harri hotz horrekin. Orduan bai sentimendua eduki dezakeela.

Gaztarotik, zein duzu momenturik hoberena?

Garai bakoitzak badu bere grazi bat. Hemezortzi urtetako erokeri garaia eta sasoia politak dira. Adinarekin, heldutzen edo gau-

zak beste era batetara ikusten ditugu. Larogei urtetan ere ilusioren bat izanen dugula pentsatzen dut. Garai bakoitzari berea eman behar zaiola uste dut.

Nola gogoratzen duzu eskola garaia?

Bi garai ezberdinak izan zituen. Bueno, bi baino, hiru. Lehenengo

garai bost-sei urtekin monjetan eta oroitzapen ona daukat, polita. Gero beste garai bat, hamar-hamaika urte nituela, eskola kartzela bezala hartzen zen, hala zirudien. Beldurra hartzeko moduko gauza gogorra...

Eta hirugarren bat, hura ere oso polita izan zen, beste filosofi batekin hartu nuen.

Nik eskolara ez badut joan nahi zergatik joan behar dut? galdetzen nion neure buruari. Bestaldetik, nere gurasoek nik zerbait ikastea nahi zuten baina nik nere ama eskulan gogorretan ikusten nuen eta ni sasoi batean nengoela eskolan. Hori ezin nuen eraman eta nere haserre agertzen nuen. Horregatik eskolara joanda ez nuen egiten egin behar nuenik edo beste batzuek pentsatzen zutena.

Lehengo garaia berriro ere gogoratuz, emaztea ezagutu aurretik, maitemindu al zinen inoiz, maitasunaren kiliak sentitu al zenituen?

Bai, nik uste denok badugula garai bat... hamasei-hamazazpi urte horietan badago hor zerbait eragiten dizuna. Neska gehiagorekin izan ditut harremanak noski baina sakonagoak orain dudaneurekin.

Ospetsu izateak, haundiagoa sentiarazten al zaitu?

Ez, ez, beno, ni konturatzenez ezaguna naizela Euskalerrian eta honek kezka bat sortarazten dizu. Kezka edo... jende asko begira dagoenez gauzak arinki egin beharrean, gehiago pentsatuta.

Oraingo bizimodua aldatu beharko bazenu, zerengatik?

Nahitanahiez aldatzea etorriko balitz, aldatu beharko nuke baino oso

gustora nago. Aldatuko nuke baina nere gogoz ez.

Zuen seme-alabei eskeinitako ipuin baten hasera edota bukaera?

Hirugarren semea jaio zenean bihotzetik atera zitzaidan. Han ikusi nituen haurra eta ama, momentu latz horietako momentu horiei eskeini nizkion. Ez dago esaterik hasera edo bukaera, denak badu zerbait esateko.

Leitza ere, pentsamenduetan murgiltzeko herri aproposa dugu. Zuri zer adierazten dizu bertako inguruneak?

Bueno, nik uste pertsona bat inguruneak eraginda izan daitekeela hala. Ni edo beste leitzar bat Leitza jaio ez bagina, ez ginateke horrelakoak izanen. Tokiak markatu egiten zaitu. hau ez da bestea baino txarragoa edo hobeagoa, giro horrekin hezi zara eta lotuta zaude.

b

ada esaldi zahar bat: Leitza handi, Iruñean pare...

Eta handitu nahiean hala ere.

Zer esanen zenieke autobiaren haserako obretan lurrean etzanik dauden zuhaitzei?



Badirudi aurrerakuntzak munduan beharrezkoak direla, aurrera ari direla eta egoera horretan gauza batzuk moztan ari garela. Baina gure buruari egin behar genieke... aurrera ote goaz eta nora? Presaka bizi gara, baina noiz behinka gelditu beharko genuke pentsatzen presa hau, zertarako? eta nora joan behar dugu? Lehengo zuhaitza botatzerako ondo pentsatuta bota izan den edo ez den izan. Orain iskanbila "Autobia bai, autobia ez" dago. Nik bai diot, baina... nolako autobia? Galderak egin ote diren aurretik, non egin behar da? nola egin behar da? ...galdera hauek egin ondoren bota ote den lehenbiziko zuhaitz hori?

Galdera ezaguna izan

arren, nola joanen zinateke irla batetara? Zerekin edo zer eramanda?

Lagun batekin. Gauzak ere behar dira, filosofia hutsarekin ezin bait daiteke bizi. Gosea sentitzen dugu eta hau asetu behar dugu. Pertsonak sorreratik izan duen lehen kezka. Gosea kenduz gainontzekoa heldu da. Lehenbizi bizi eta gero nola bizi.

Abertzale definitu zara behin baino gehiagotan. Zein da zure helburu nagusia?

Bakoitza toki batetan jaoi denez, toki hortakoa da eta maitatu egin behar du, Zainak mantentzen ez badira ihartu egiten dira, Abertzalea bere herria, giroa, ingurua... maitatzea eta hortan ahalegintzea.

Batua bai hala ez?

Batua batzuetan bai... baina nolako batua. Lanean arropa zikinekin gabiltza, nonbaitera joan behar badugu txukun jartzen gara. Eta hizkuntza askotan arropa zikin hori bezala erabiltzen da. Liburu bat irakurtzeko, irratirako, telebistarako, hizketa garbia behar du. Batua behar du izan.

Nori eskeiniko zenioke irrifar berezi bat?

Eskeintzen diot, askotan eta txoraturik nere seme ttikienari.

Biziorik haundiena?

Bizio haundirik ez dut uste izan dezakedanik. Txiki batzuk. Gainera bizioak txikiak dira bestela

ez dira bizioak.

Gazteria, galdurik al dago?

Lehen esan dut presaka bizi garela eta geldituz galdetu behar dugula nora goazen. Eta gazteria hala dabil. Beraien bizimoduan eragin handien eta lehen langabezia da. Lehen hamabost-hamasei urterekin neska-mutilak lanera joaten ziren. Bata basora, bestea neskame... gaur egun ezin daiteke. Lehen-bizi gosea kendu eta gero nola bizi ikusi.

Maitasunari eginen zenizkiokeen bi galdera...

Maitasuna mota ezberdinetakoak daude baina... Zergatik maitatzen dut zerbait hori? eta zer eman

eta zer eskatu maitatutako horri?

Zure harri batetan zer nolako eskultura saiatuko zinateke egiten?

Buruan gauza, sentimendu asko... izaten ditugu denok eta behar bada buruan dudan zerbait hori, amets bat... saiatuko nintzateke egiten, imajina ematen eta harria izan daiteke bide. Denok bizian badugu zerbaiten egarria... Hori eginez gero badirudi bestea egina dagoela, ez?

Kantaren bat?

... atsegin xamarra, patxadazkoa... bat aukeratzeko... lagunen artean, bere amari Luis Marianok kantatzen duena.

Zuregana galdetzera

datorren edozeini, zer eskatuko zenioke?

Galderak ez egiteko egiteagatik. Eskola-ikastolan aritzen eta umeekin elkarriketak sortzen dira eta ohartzen zara zenbait egun guztia behar duela gustoko galdera egiteko eta beste batzuk berriz, edozein galdera eta umetan ulergarria da, baina pertsona larriak hori egitea amorrua ematen du. Hona etortzen dira, egunkariko nagusiak bidalita, eta nola edo hala bete egiten ditu galdera batzuk baina beti betikoak eta batzutan bai irratiz bai telefonoz "horrek erantzuterik ez dik merezi" esan izan dut.

Osatuko al zenuke puntu hau:


Pertson guztiak badu bere gora beherak irabazitakoak baita ere galerak. hasera denak ez ditu berdin bukaerak,

d

bi aurpegi askotan.

dauzka egun berak.

ena den, pena batez alde egiten dugu bozaren goxotasuna, begiradaren argitasuna paper honetan ezin izanen dugula azaldu.



Agotak, marginatu sozialak

Arrazoiak ez zeuden agoteengan, bertzeengan baizik



Agota hitza aproposa ez bada ere, gehienbatean iraintzeko erabiltzen zelako, ezin da bere ordeztu bertze bat jarri, gaur egun behintzat. Dena dela, interesgarriena ez da izen hori jasotzen zuten pertsona multzoa berez, horren inguruan dagoen fenomeno soziala baizik.

Fenomeno hori Gaskoina osoan hedatzen zen, Bordeletik Lengadoc-eko Tolosaraino. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan ere herri aunitzetan eman zen, batez ere Iruñetik Iparraldera, Lesakatik Erronkariraino. XV. mendetik XIX. mendera arte (Iraultza Frantzesaren ondoko Estatu Liberalak inposatu arte, alegia) iraun zuen. Arrunt fenomeno zabala eta konplexua, tokian tokiko ezaugarriekin eta urteen poderioz aldaketa batzuk jasotzen zutena.

Zein zen arazoa? Bi hitzetan erranda, agotek garai hartako gizartearekin bat egin nahi zutela, eta gizarteak, berriz, utzi ez. Inolako

kontaktu fisikorik ere ukatzen zitzaizkien zenbait tokitan, eta beti bereizteko beharra zuten. Nafarroan ez zen hain urrun ailegatu: debeku nagusiak Udal Batzarretan parte ez hartzearenak ziren —eta udal ondasunez ez baliatzea: lurrak, oihanak, egurra, belarra, iratzea, bordak egitea...— eta honen ondorioz, elizkizunetan beti azkenekoak izatea.

Gizarteak ez zuen inolako integrazioerik nahi izan

Beraz, agotek ez zuten problema sortu, gizarteak baizik, inolako integrazioerik nahi ez zuelako. Ijitoek, juduek edo moriskoek ez bezala, agotek ez zuten bertzeekin diferentziarik: hizkuntza —euskara, gas-

koiera—, erligioa, usadioak, jazerak, bizimodua... Marjinazioak berak markatzen zuten diferentzia, ez zuten deus propiorik.

Suposatutako jatorri *zikina* —kanpotarrak, eriak, hereseak...— ahaztu bazen eta deus diferenterik ez bazuten, zergatik iraun zuen hainbertze? Ikerlari gehienek bi galdera horiei erantzuna eman nahi izan diete: leporatzen zitzaizkien jatorri eta diferentziak konprobazekin dira, absurdoak batzutan. Arrazoiak ez bait dira agotengan bilatu behar, bertzeengan baizik.

Europar ere antzeko kasuak eman ziren

Mendebaldeko gizarteak ez da baxteretolerantea izan: juduak, ijitoak,

mairuak, katoliko eta protestateen arteko borroka odoltsuak... Edo, agotak bezala, Asturias-ko "Vaquerros de alzada", Palma de Mallorcan "Xuetas", Britainako "Kakous", Auvernha-ko "Marrans" eta bertze zenbait talde ttiki, jatorri ezezagunekoak eta tajuzko desberdintasunik gabekoak.

Bozateko agoteentzat "Baztan Berri" izeneko hiriska eraiki zuten


Nafarroako kasuan pixka bat gehiago zehaz daiteke: agotei buruzko dokumentazio guztia auziak dira, XVI. mendetik XVIIIra arte. Bi maila agertzen dira: Iruñeko Gorteak, Auzitegia eta Obispadoa, teoriarik agotari alde, baina aginduak betearazten ez zituztenak. Lur pribatu gutti zen garai hartan, ezin zen komunalik gabe bizi, eta agotak ziren bereari tinko eusten zioten bakarrak.

Zergatik orduan urte batzuetan galarazten zieten praktikan ere? XVI eta XVII. mendeetan krisialdi latzak pasatzen zituzten mendialdeko herriek. Estu eta larri zebiltzan urtetan nori jarri trabak? XVIII. mendean, artoak gosete haundiak desagertarazi zitueneari, auziek ez dute garrantzi handirik.

Nobleza heredatzen bazen, jatorri garbia, alegia, jatorri zikina baita. Alde horretatik arraz zaila zen integrazioa. Bertze aldetik, gizarteak bere barneko tentsioak agotengan erreflejatzen zuen: sorginkeria kasu bat izan zen Burgin herri osoa afektatu zuena, eta urte hartan agotak bota zituzten. Eta ez da kointzidentzia bakarra.

Agotek, beraz, gizarte hartako egitura eta tentsioak aztertze baliogabeak, eta gizarte haren ezagutzeak, aldiz, agoten marjinazioa konprenitzeko.

JAVIER IGNACIO QUEREJETA



OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

- * AGIRRE DELCLAU, M. Carmen: "Los Agotes". Príncipe de Viana. Iruñea. 1977.
- * ANTOLINI, Paola: "Los Agotes. Historia de una exclusión". Istmo. Madrid. 1989.
- * IDOATE, Florencio: "Documentos sobre Agotes y grupos afines en Navarra". Príncipe de Viana. Iruñea. 1973.
- * MICHEL, Francisque: "Histoi-

re des Races Maudites de la France et de l'Espagne". Donostia. 1989.

* ROCHAS, Vicent de: "Lwes parias de France et d'Espagne". Paris. 1876.

* MIKELARENA PEÑA, Fernando: "Situación social de la minoría Agote en la montaña de Navarra. Bidasoako Ikaskuntza Aldizkaria 6. alea. Irun.

Fernan Garzia

***”Egurra lantzea, irakaskuntzan aritzea baino
gehiago gustatzen zait”***



Fernan Garzia irundarra izanik Labainen bizi da orain dela 8 urte; Labaingo eskolako irakaslea dugu.

Bere kontura eta denbora librean, egurra nola lantzen den ikasten hasi zen.

Etixerako tresneriaz hasi (tenedoreak, kutxareak...) eta momentu honetan hutsuneak eta bolumenak ikertzen ari da.

Zenbait erakusketa eta artesau ferietan ere parte hartu du...

Elorrion, Hondarribian, Irunen, Iruñean.

Apirilaren 7tik 30era Hondarribiko TTopara galerian erakusketa bat egingen du Fernanek. Norbaitek ezagutu nahi baldin badu, agertzea baino ez du .

MIREN KARMELE

Nola hasten da maixu bat egurra lantzen? Zerk bultzatzen dio?

Betidanik, nere lanbideetik aparte zerbait egin behar nuela sentitu izan dut. Hasiera batetan mila gauzetan hasi nintzen baina azkenean konturatu nintzen egurra zela gehien gustatzen zitzaidana.

Labainera etorri bizitzera eta Irunen baino denbora libre gehiago nuenez, betidanik eduki nituen gogo haietan hasi nintzen. Klasetik atera eta egurra lantzea pentsatu nuen. Hasieran gauza sinpleekin, burrun-tzaleak, tenedoreak... gero, argizaio-lak eta beste zenbait lan baina beti ere horizontalean.

Oteiza eta Basterretxea estetiko-ki izugarri gustatzen zaizkit eta mitologi mundu horretan sartzen joan naiz beraiekin. Horrela hasi nintzen hutsuneak eta bolumenak lantzen. Oteizak bere eskulturekin amets egitea lortzen du... errito magikoak... hutsuneak gustatzen zaizkit eta hutsune borobilak atrakzio haundia dute niregan, eguzkia, eguzkiaren mitologia, errito magikoak, betidanik egon dira hor.

Halere ez dakit nola hasi naizen

bolumenarekin baina oso erakargarria gertatzen zait. Bolumenak presentzia haundiagoa dauka. Teknika aldetik gogoko dut eta orain ziur nago egin dezakedala, ez dakit noraino iritsiko naizen...

Egurrak zer eskeintzen dizu lantzerakoan?

Egurra sorpresaz beteriko materialek da, badira egurrak bere adabegitan eta zerro edo betatan zer egin behar duzun esaten dutenak. Askotan lanean hasi eta ba, pentsatzen duzu hau beharbada tintatuko dut edo horrelako forma emanen diot baina gero, berez zerroek edo betek dituzten formengatik, horrela utzi behar duzu bestela, hondatuko litzateke eta.

Beste materialekin saiatu zara noizpait?

Ez, baina burniarekin jesukristoren monoa daukat. Nere ilusioetarako bat litzateke soldadoreen botela horietako bat eduki eta soldadurarekin lan egitea, ez dut ezagutzen baina iruditzen zait izugarria behar duela izan.

Zein asmo dituzu etorkizunera begira?

Baditut zenbait gauza pentsatuak



baina etorkizunak ez nau kezkatzen, ideien arabera egiten dut lan. Lan horizontalak ez dit gehiegi esaten orain, gustatu bai, hori pazientziatz hartu behar den gauza da ez du sekretorik neretzat jadanik. Bolumenak jaten dit burua eta honetan ari-tuko naizela pentsatzen dut. Bestalde, artesau ferietara joanen naiz.

Osorik egurra lantzera dedikatzea pentsatu al duzu inoiz?

Gustatuko litzaidake. Irakaskuntzatik dirua ateratzen dut bizi ahal izateko baina neretzat benetako lana egurra lantzea da. Jendearentzat dirua ateratzen duzun tokia, lana da eta beste guztia hobbya, nahiz eta egiten den lan hori ez gustokoa izan.

Eskulturak dirua ematen dizute?

Bueno hori, dedikatzea da, ateratzen ahal da. Orain arte egin dudana ia dohanik eman dut, noski lan guziekin ezin naiz geratu eta saldu beharko ditut edota lagunei utzi eta erostuna edo esposizio bat dudanean, eraman. Egurra denez, sua egiteko ere balio dute.



Josune eta Ainhoa, nola soinu hala dantza

Lehenik dantzari, gero trikitilari, orain bietan irakasle

Joan den urtean, Nafarroako bertsolari txapelketaren saio bat Sunbillaan ospatu zenean, ustegabe-ko atsegina izan genuen: epaimahaiak bere erabakiak prestatzen zituen bitartean, trikitilari bikote gazte bat agertu zen eta soinu eta abots biziz bizpahiru kanta eskeini. Geroztik, aunitz lekutan eta aunitz aldiz aritu dira bi ahizpa hauek: "ez genuen horrelakorik espero, inguru honetako saioez gain, iaz Alicanterara joan ginen Iturengo joaldunekin eta orain Europan barna itzuli bat egiteko aukera dugu gure Irungo taldearekin"

Baina nor dira Josune eta Ainhoa? Nongoak dira? "ia ez dakigu zer erran, orduan, ba, aste tartean irundarrak eta asteburutan sunbildarrak". 18 eta 15 urte dituzte, eta Irungo "Kemen" dantza taldean aritu dira hamar eta sei urtez, esku-soinuaren irrika sartu arte. "Nik akordeoia jotzen ikasi nahi nuen, baina trikitixa solfeorik jakin gabe jo zitekeela erran zidatenean ez nuen bi aldiz pentsatu", dio



Ainhoak. Josune geroago hasi zen panderoarekin. Guk soinu onik ez diogu ateratzen (traketsak izaki nonbait), baina "hau edozeinek jo dezake" erraten du berak. Horra bada bikotea! Aipatu behar da alderdi honetan bikote gisa ibiltzen badira ere Irunen Maltzeta aita-alabeekin aritzen direla taldean.

Trikitixa tresna berri samarra dugu Nafarroako mendialde honetan eta ez hagitz zabaldua, nahiz eta Lesakako taldeak hamarren bat urte

daraman. Dena den, beraiek diote-nez, "jendea gehien harritzen duena zera da, bi neska ibiltzea, bikote gehienetan mutilak edo neska-mutilak izaten bait dira".

Guri, berriz, harrigarriagoa iduritzen zaigu aurrean Sunbilla eta Iturenen duten ikasle multzoa, "Sunbilla, 43 lagun dantzak ikasten, 7 trikitixa jotzen eta 24 panderoa jotzen ikasten, denak lau eta hamalau urte bitarteko neska-mutikoak; Iturenen, 28 dantzari, 7 trikitilari eta 5 pandero jole". Bi herriak dantzan jartzeko aina! Hala ere, prest leudeke jende gehiago hartzeko, gurasoen laguntzaz pisu bat jarriko bait dute horretarako Sunbilla. "Neska-mutilen ilusioa ikustea izugarri pozgarria da. Ikastea, ateralditxoak egitea ... polita da benetan beraientzat eta guretzat".

Badagoela ipurdia mugitzeko aukera! Ipurdia, eskuak eta oinak. Zorionak.

PATXI PETRIRENA



Harmajakintza

Europako bertze herrietan bezala, Euskalerrian, Harmarrijakintza edo Heraldika gizaldietan zehar garrantzia haundia izan du, eta gainera, gure lurraldean nortasun propioa izatera ailegatu da.

Dirudienez, harmarrijakintza XII. mendean hasi zen, Gurutzaden eragina zela eta. Orduan nobleak zirenak eta ez zirenak bereizteko tresna

modura erabili zen. Horregatik, Frantzes Iraultzarekin, ordurarte zueñ garrantzia galtzen hasi zuen.

Hala ere eta kutsu klasista hori baztertu ondoren, Heraldikan gure kulturaren ondasun garrantzitsu bat aurkitzen dugu. Bainan ondasun hori, gaur egun, ia ezezaguna da.

Heraldikak bere hiztegi berezia eta lege propioak ditu. Adibidez,

koloreei, "esmalte" izena ematen zaie. Esmalte hauek bi taldetan bereizten dira: alde batetik metalak daude; urrea (horia) eta zilarra (zuria), eta bertzetik margoak; gorria, urdina, beltza, berdea eta purpura. Esmalte hauen irudia harrian sinbolizatzeko, puntu eta marra sistema erabiltzen da, ondorengo adibideetan ikusi ahal duzuen bezala:

METALAK



URREA (HORIA)



ZILARRA (ZURIA)

MARGOAK



GORRIA



URDINA




BELTZA



BERDEA




PURPURA




ITURENGO JAUREGIA

(XVI. MENDEAN)



AGERRE (BERAN)



HUARTE (BORTZIRIETAN)


Irudi eta esmalte hauek jartzeko, lege batzuk badaude: ezin da metalaren gainean jarri edo margoa, margoaren gainean. Horregatik metalak eta margoak haien artean konbinatu egin behar dira. Kontura-

tuko zarete, honela, goiko hiru harmarri horiek lege hau betetzen dutela.

Gai interesgarri honi buruzko sarrera motz honekin bukatzeko, ideia bat azpimarratu nahi nuke:

Harmarrijakintza euskal kulturaren parte bat dela eta komeni litzateke, prejuizioak alde batetara utziaz, bere ezagueran sakontzea.

PIO BENEDICTO DE URRUTIA



JOXEMARI,

Lan literarioa betidanik egin zait nekoso, gauzak polit erratera arront zaila bait da. Nere buruarekin desafio nuela eta... saiatu, behintzat, saiatu behar dut, erran nuen nere kautan...

"Amets sakonaren burrunbatik bapatean ernarazi zaituztenean izaten den haizez-igerialpema hiamoduko ezinegonen batean nintzen. Mundu guztia arrotza zen, ni neu arrotzena" —hasi nintzen. Aldrebestuegia ez ote zen? Tira! Zalantzekin jolasketan ez ibiltzea hobe!

"Ate danbada galantak ziren atea lurreratze arriskuan paratzen zutenak. Ohatzetik ateri eta itsu-itsuan ireki nuen. Iparrafrikar bat nuen aintzinean, pareparean, ohizko eskeintza bariatuak eginez: alfonbrak, kondoiak, irratiak... denetarik zuen hark! —Josemari, merketatona—, agurtze gisa erran zidan".

Itsuski gelditzen da. Ez du interesarik. Gibeletik aintzinera hobe nuke, akaso.

Proba bat:

"Adin eta larru arras ezberdineko jendea zen han, zuriak eta beltzak. Zuriak attun zaharrak ziren denak. Lelotuak ziruditen, seguraski neronek izanen nuen aurpegi ergelaren antzekoez hornituak... Gazteak ez, beltzaranetik beltz-bantura dihoan eskalako osagarriak lirakeen begi zabal erne haiek.

Emakume edo haurraren arrastorik ala ahotsik ez zen sumatzen... Isiltasun gorputzduna bait zen hura! Ate eta leiho ezagatik ezaugarritzen zen pareta bakarraren goikaldean, "euskal hizkiez" idatzitako kartel zurigorriberdeak adierazten zuenez, Gizonen Etxean nintzen eta ginen... Auskalo non, noiz eta nola!

Gaia zela pentsatu nuen, leihotik haruntz iluntasuna bertzerik ez bait zen nabarmentzen... Gaua

MERKETAONA!

goibeltsua?... Aztertzeke astirik ez nuen, denboraren jabe boteretsuei dagokien itxura patxaroso z jantzirik aintzinean eserita zeudenek arreta mugimendua egin bait zuten. Zuri bakanen solas txanda ailegatua zen.”

Kaka zaharra! Zer erran nahi dut? Gero eta gutxiago garela, zuriak, euskaldunak... beltzak eta iparrafrakarrak ugaritzen ari direla. Ez dugu haurrik sortzen... Haiek bai, ordea. Eta lehenbailehen erabakiren bat hartu beharra dago: alde ala kontra?, berdintasun ala ezberdintasun alorra jorratu behar dugu? Arrazakeria hementxe bertan da, ikus Le Pen Jaunaren jokaera. Zera proposatuko nuke nik; hain ugariak diren Euskal Misiolari horiek bildu, leku aproposetan kokatu eta euskara erakasten saia daitezela. Paperez hornituriko euskaldunak, heda ditzatela inguruan. Mestiza gaitezen gaur, bihar baztertutako zuriak izatea nahi ez badugu behintzat. Irakurri duzue “Kongobaltza, huevosblancos”? Hori litzateke bidea.

Berriro egin du porrota nere gogo literarioak! Berri-tik hasiko naiz?

”Txanda ailegatu zitzaidanean salaketa ugari egin nien. Bertzeek errana guztiz gezurtzat nuela bota nuen... arabiar fundamentalistek eta Black Power-ekoek sinatutako itunaren ondorioa oinarria zela, argi eta garbi, hala nola Mirian Makebak —Paul Simon, Sting eta antzekoen medioz— aurrera eramandako eraso morala genuela. He-goafrikako Mandelak antolatutako bake itxurazko inbasioa zen dena”...

Kontraesankorra! Bai, dudarik gabe! Nola liteke bertzela? Gauzak polit erratea irakurleak bereganatze asmoarekin egiten da, klase guztietako irakurleak, agian. oraindik ez da deus garbirik eztabaidatu... Zein jarrera dut, horrela bagaude, arrakastatsuen?

Utz dezagun dena dagoen bezala. Josemari, merke-taona! Hauxe da lana!

JOXEMAI-ZURIA



Astegunetako igeritokia

Cesare Pavese

Joakin Balentziaren itzulpena

Ederra da itsasberde koloreko gure igeritokia eguzki-pean, eta etxeak eta etorbi-deak ezkutatzen dituzten inguruko sasiekin, eta urrunago muño apalak; hain ederra non gutariko bat noizbehinka jeiki, orotariko begirada bat jo eta urrats bat ematen bait du, eta gero hasperen batez amasa hartuz begiak itxi eta berriz etzaten bait da isilik. Andre batek hori egiten badu denok begiratzeko diogu; gero begirada bat jotzen diogu inor sartzen ez denetiko sarrerako burdinsareari. Badakigu eguzkia eta ur berdea goizaldea betetzeko nahikoak direla —noizbehinka gutariko bat jeiki eta uretara botatzen da—, baina norberaren errezelua datza ea zer eginen lukeen igeritokia jenderik gabe izanen balitz eta berak bakarrik hainbeste argiz eta eguraldi ederrez gozatu behar izanen balu.

Egiatan, denok zain gaude. Elkarri erraten diogu esaldi isekari edo nagitsuez, burua ia itzuli gabe, izerdiaren zaporea duten ezpainak mugituz. Gurekin dauden bi andrelagunak eseri edo etzaten dira eguzkiari edo desio aldakorrei dagokien arauera. Elkarri egiten diogun konpainiak balio du itxarote ugaria, gure barnean mututzeko tentazioak sortzen duen hutsune ezezagokorra lekoratzeko.

Oso haundia da igeritokia, baina ez zaigu okurritzen gorputzen gainetik saltatzen eta behatzen kurritzea. Batek ez du kuriositaterik, igeritokian. Aurpegiera eta gorputz lagunek inguraturik, ordea, bapateko bakartasunak ezustean hartzen utzi nahiago du. Badago oihu eta irri egiten duen jendea: erran zitekeen beraientzat itxarotea akitu dela. Behatzen da, aparrak, gorputz biluziak, bustidurak ikusten dira; mutikoak dira, jolasak dira. Ez da oraindik hori: guretzat ez, bederen.


Zeruaren biluztasunak geurea premiatzen du. Zaila da gogoetak ezkutatzea biluztasun bakan honetan. Bat ia ez da asaldatzen, ikusgarri sentitzen da uharri bat uraren hondoan bezala. Gure bakartasuna hutsune bat da, gogoetan mugiezintasun bat. Horrela bakarrik gure zerbait bihotzean geratzen zaigu. Batzutan ahazten dugu, eta ozenki erraten ditugu azalekoak soinu egiten duten ezusteko gauzak, besteek jakindakoak.

Uretara botatzeko taldea uzten duen gutariko batek diskulpatzen dela itxura du eta gonbidatzen die besteei berari segitzera, laguntzera. Gure andrelagunak begiratzeko diote irri eginez. Batzutan haiek ere jeikitzen dira, beste batzutan denok jeikitzen gara, uretan murgilduz.

Bakartasunatik eta itxarotetik ez da, uretan ezta ere, ihes egiten. Gutariko bat hondora jeisten da, zementua ukitzeraino jeitsiaz; gauza bakan bat da, eta, ur berdeetan murgildurik dirauen istante guztiak, ezkutatze, bakarrik egoteko modu bat dira. Guregana, uzkur, itzultzen denean, zerbaiten zain ez egotearen itxura duen bakarra da.

Zer gertatu behar da, ba? Horretaz mintzatzen da, noizbehinka, taldea birkonpontzen ari denean. Pasionatzen gaituen kontua da; baten batek berehala ez du ulertzen gutarikoetan bizienak planteiatzen denean, baina gero azaltzen zaio eta berari ere kuriositatea sartzen zaio. “Hemen gaude bainatzeko eta eguzkia hartzeko”, diogu. Hori da. “Hemen gaude elkarrekin egoteko”. Gutariko bakoitzak pentsatzen du igeritokia jenderik gabe egonen balitz ez lukeela bakarrik egoterik jasanen, zerupean.

Gutariko andrelagun batek irribarre egiten du eta, erdibiluzik dagoenez gero, ikusten da pentsatzen duela berari korru egiteko hemen gaudela. “Hau egia da ere bai”, dio beste batek. “Bai, bai”. Baina denok urduri gaude, batzu eserita eta beste biluzia zirgitarazten duen hutsune bat, itxarote bat da.



POEMAK

MIKEL TABERNA "Kapi"

DESERRIAN

Alderdi horretaz oroitu aldiro
deserrian bizi naizela pentsatzen dut.
Arropak hedatu ditut arestian
ekaitzetako jainkoak tentatu nahizik,
idortearena nerabeak izitzeko ipuina da:
"Bazen lurralde bat euria zer zen ez zekiena..."

Melankoliaren eszenarioan gorputz gazteak
eta gau guztietako bidaiak ardo aunitzen trenean
eta alderdi horretako usaia jautsi ahalean.
Askako urean aparra ez da zerbeza,
tanta batzu, hondarreko, kanpoko leihoan,
jainkoek amuari autsiki egin ote diote?

Baina badakit deserria ez dela bertze geografia,
zer dira hirutan hogeitaz hamabortz kilometro
malda koxkorra tartean?
Leihora ateri eta espejismoa, nahiaren ispilu,
mundutar kaxkar batek ez du horren aisa
jainkorik artean harrapatzen ahal.

Patio ilunaren bertzealdean kristaletan argi,
flaterak garbitu bidenabar galduko herriaz
pentsatzen ari norbait?
Ordea, nere deserria bertze denbora da, tik-tak,
ezin da horretara bueltatu asteburuetan,
ezta erresei fidelean eta Belaten tunela eginta
ere.

IJITO GAZTEA

Ijito gaztea
barearen lingirdan bezala
itxekitzen dira zure ibileran
begiak, eskurik ezin ordea!

Ijito gaztea
larruko eztiari dario
mila basaloreren usaia
ez izaki ni paradisu horretakoa!

Ijito gaztea
ur bazterrean lo etzinta
kilika dituzu belarrak
nahi nuke haize hori izan!

SUSPELA

Bidasoaren
(goizeroko sauna)
hats xuriaren
besarkada estua

Goibelen
maindire grisa
goitikan pixa
(malko goxoak)

Eta lurraren
berde ilunaren
(ilunegiaren?)
izerdi hotza

Laminen
spaghetti bihurrietan
brillantinen
diztira

IXURNEKO POETA



Igorriagako Ixurnen sortua da **Eduardo Gil Bera**, eta mila lekutan hamaika ofizio eta bizio pasa ondoren, berriki, Nartarteko Mikel-txenean hartu du ostatu. Nik **Montaigne Luxia** deitzen diot saiakerarako duen grazi apartagatik. Baina, poeta bezala izengoitirik jarri beharko banio, **Katulo Harra** jarriko nioke, Saiogintzan hirulau sari bereganatuak baditu ere, nik, hemen, bere poesiaren aipamena egin nahi nuke. Eta berak esana duen bezala, "*poesia esplikatua ahal balitz, ez litzakela poesi*" uste dudanez, hona bada, bere poema batzuk, nahi dituenak senti eta goza.

ALDIA NON BIZI DEN

Aldia non bizi den badakit,
ilez ile ari da, airez aire;
Hirkaniako basamortuak eta Arabiako bakartate
akiezinak
aldirako bideez ihaurri dira.
Urak oro haren errotarako
eta hor da
oraino urratu ez diren argietan,
oraino aire diren hasperenetan,
oraino zur den sutan eta lur den sagarrean,
horma gogorrean dagoen udako sapan;
bada bat,
hura bera,
bai,
unibertso zabalean eta zure eskuen itzaletan
oraino barreiatuak dauden
zure azken pentsamendura bilduko diren gaietan.

AIREAN BILDUA

Ainar lilizkatuak
miratzen dira udako zero berrian;
iraganaz mintzen denak
mintzenago luke geroa baleki.
Goian, arrano haidorra,
baina aireak ez du nehoen
oinazkarik gordetzen.

MUNSTRO BAT IDURI

Amak kanta
maxel gorri kuxkurruxka
gantz xehe mantzoka
lo bon bon tortoiloxko
xilo ttipitto txiroka.
Eta sehaska blantzak, kexuka.
Beharrik hori gertatzen
hemendik mila lekotan,
berriz bideari lot
amesgaizto nuen.
"Porrokatua haiz, hago lotan"
nion erran.

HOFFMANN, EPAILE FINA

Königsberg, hamaika zubietako hiria,
laino frankotan,
hangotarra zen, bolada batez,
epailea, begirada zorrotzekoa.
Ametsez bertzerik
ez zituen juzkatu,
geure ametsez landara
ez garela erantzuleak zioen,
irriz,
eta halako moldez amestu zuen
non nehoiz ez baitzen nehongotarra,
sekula ez eta betiko.

AZERI EZTEIAK

Zaparrak eskapo
ene haran honetarik,
atzerriratu ditudan tantaletan
ezinbertzeari natzaio irri,
engainuaren oihala goratu
eta apalki ziztu egiten dut.
Arrazonatu behar
heriotz gogorrez.
Zapelarra nimir
euri tanta mila
eta bi.

TESTAMENTUA

Ez. Ezetz, zoriari deus erantzuki
ez;
nehoi ez natzaio
keinu batez zordun.
Badakit neure burua
soberesten.

EPITAFIOA

Ni naiz errebelatuaren tonba,
bizi zen noraz nora
eta bizitzak hil zuen.
Baina, zu ibiltari, segi aitzina,
gu hilik eta,
haizeak segitu baitzuen
ziztuan.

p

oema hauek, 1988.eko
Irun Saria irabazi zuen
HORTUS BOTANICUS liburutik hartuak
izan dira. Baina, sari hau
ezezik, 1989.ko **Azkue**
Saria ere bereganatua
du Eduardo Gil Berak
poesian, aurki argitara-
tzekoa duen bere
STRASBURGEKO
ORDULARIA lanari
esker.

PATZIKU PERURENA

nere ezintasunean hertsirik, hormarik gabeko zienaga suntsiezin horretan askatasunaren hatsa arnasteke, nere bihotzaren azken orduetan dihardut. Nork daki, norainoko zabaldura hartzen, eratxekitzen duten, nire zuenganako ondamu, garbi aiher, grinak.

Fadura andur harek munduari bere hobenaren ordaina egotzi behar eta niregan jaurtiki zuen. Zuek, ortzi eskerka, eutsiezin, itsutzaile gertatzen den horren hiritar, unibertsotar enara-ok, askatasun gorputzaren arima zeuongan, zeuon hegal ttipitto horiengan gordetzen duzue. Ankerrak zuek, urri baino eskasago dugularik, gizonaren beharretara jeisten ez duzuenean. Zeuok, eurrez, larki duzuen zeuok, bihotz-gabeko batzu baino ez zarete. Horra zertan bilakatu zaituzteten askatasunak; bihotzik gabeko krudelki jostatzen zaiten, harri kokkor hegalari askeetan.

Itsasoak lurra leunki ferekatzen duelarik eta maitasun atarramendu aparrak Ulises-en kondairez geure lamien xirulen soinua ezitzen duelarik, zure begiek jauregi hotz, nabal-konterri, zeru ortzea oiñeztura horrez, urritu egiten dute.

Ezen nire negar malkoak, ur-putzu galantak noizbait, antzutuko bait dira eta buztina harkaitz bilakatuko. Barren erauntsiek zimiztaka puskatu egingo bait dute maiseoaren horma. Urratuko dituzte harkaitzik erraldoi eta haundienak eta gero inoiz ezagutu den "oasis" bakea helduko da. Helduko da bai, sumendiek lehertzerakoan eta gonbitalarriari ezin eutsian airera ehortzi eta sua lurrean landatu ondoren, ailegatzen den ixilunea. Gauza guztien ixila. Taupadak denboraren zikloan gelditu eta baretasun amandrea aurkeztuko bailitzaigun.

nola ez naiz ba, garai haietaz oroituko, liskarren denbora, istiluak, ez-jakintasuna errege ziren egun haietaz.

Bejondaiela lainotasunaren erresuman bizitako opor haiei! Gau, egun bakoitza aurrekoarekin elkargaitza suertatzen zen; abentura berri bat; egonariaren aienatzea adierazten zuen iskanbila berri bat.

Behin baino bitan neure burua harat, urrun itzultzeaz kausitu dut, baina beti, gaurkotasunaren presentzia nabarmenarazten zidan, oihu, negar inkesa batek, neure hortutik aldendu egin nau. Eta hain naiz haren egarri, hain ditut istilu lanbrozko egun haiek maite, ezen noizbait itzuliko naizenaren ziurtasunari gogor oratu behar bait naitzaio.

GOTZONE LEONIS



EUSKAL LIBURUAK
EUSKAL MUSIKA
GAI OROKORRAK

Comedias, 14 - IRUÑEA

ATERPE

jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA



ZALAIN
KARROZERIAK

TXAPA ETA PINTURA
Tfnoa.: 630188 BERA



Tfnoa.: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI




Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA



Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE



Beheko Plaza 8, LESAKA



y oan

Zapatadenda

Beraketa, 13 IRUN Tfnoa. (943) 62 15 74

GAI A

OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

Hemen zuk behar zenuena
* Hurbil eta egoki *

- ✓ Mediku naturistarekin kontsulta
 - ✓ Mehetzeko dietak eta laguntzak
 - ✓ Erremedioak eritasun guztientzat
 - ✓ Diabetikoentzat goxoki azukregabeak
- Zatoz konfiantza osoarekin
Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako
mobleak
- ✓ Koltxoia

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN

Alkohola: droga legala

Mendebaldeko zibilizazioaren droga da alkohola.

Ongi erabilia, badaiteke kalterik ez egitea eta zenbait ospakizun berezi ongi pasaraztera laguntzea. Maiztasunez erabiliz gero, aunitzetan osasuna txartzen du, zirkulazio, nerbio edota arazo hepatitikoak sorreraziz.

Neurritz kanpo erabiliz gero, toxikazio indibidualak eta sozialak sor ditzake, ondorio kaltegarriak erakarriz gizartearentzako: istiluak, erasoak, istripuak eta era guzietako nahasketak dira ondoriorik nabarmenenak. Alkohola edatera joera duten zenbait pertsonengan eritasun larria sor dezake: alkohol toxikomania edota alkoholismoa hagitx zaila da sendatzeko, eta eritasuna jasaten duenari eta honen familiari sufrimendu larriak sortzen dizkio.

Alkohola duten edari pila edonoren esku egoteak, honen prezio baxuak eta edateko ohitura sozialak dira alkoholismo maila hain haundia izateari esplikazio ematen dioten faktoreak.

"Edateak engaina zaitzake"

NAFARROAKO

OSASUN MENTALEKO TALDEA



Eraztunen erranahia

Jendeak janzkerarekin, orrazkerarekin, ibilkerarekin, itxura aldaketekin eta hainbertze gauzekin nolakoa den adierazten du edo behintzat, nolako egoeran bizi den.

Lehen, eraztunak, eramailearen gradu edo maila erraten zuen zehazki. Osagarrien araber, ahalmen sendagarriak, magikoak,... etab. izaten ahal omen ditu.

Gaur egun eraztunen erabilpena aunitz zabaldu da, batez ere nesken artean. Lehengo erranahi zehatz haiek galdu badira ere, kokapenak informazio baliotsua eskeintzen digu. Hona hemen adibide batzu.

Atxikarra edo behatz ttikia

Atxikarran edo behatz ttikian eraztuna daraman pertsona ez da gizartean normalki eralzionatzen. Isolamendu edo konplexuen adierazgarri da. Baliteke ere, sexu alorrean desoreka edo desekilibrioren bat izatea.

Nagia edo anularra

Ezkont eraztuna behatz honetan eramaten da eta jasotako ardura edo konpromezuaren oroigarri da. Eramalea ez bada ezkondua, orduan zerbait falta duela, maitasuna bila dabilela adierazten du.

Bihotzekoa

Behatz honetan eramateak serietatea adierazten du, beharbada gehiegizkoa. Pertsonalitate haundia eta gogorra izaten da, erreflexiboa eta analitikoa.

Erakuslea

Lehen eliz-gizonek, erregek, aberatsek... hatz honetan jartzen zuten beraien maila erakusten zuen eraztuna. Pertsonalitate bikaina, goi mailako ideia edo helburuen atzetik dabilena. Baita ere boterea, borondatea; oilarkeria.

Erpurua edo lodia

Eraztuna hemen paratzeak gehiegikeria erakusten du. Edozein motatakoa: apasionatuegia, sobera borondate, errebeldea...

Eraztun aunitz eramateak, hatz berean edo ezberdinetan, pertsonalitate berezia eta bitxia adierazten du. Karakterraren alorren batetan ez da "aklaratzen".

Zenbait idazlen eritziz, ezkerreko eskuan pertsonen oraina agertzen da eta eskuinekoan iragana. Bertze batzuentzat ezkerreko eskuko eraztunak balore negatiboak gehitzen dituzte eta eskuinekoak balore positiboak.

FERMIN ALTZUGUREN



Aunitz eraztunak eskasi edo gabetasunaren adierazgarri omen dira.

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Doneztebe.** Pisu bat alokatzen da bi bizitzako etxe batetan; baratze eta guzi. Hilean 12.000 pzt. eta 4 urtetarako kontratua. Tfnoa: 594054

-**Arantza.** Baserri baten berri ematen da. Argia, ura eta telefonoa- rekin. 3 hektarea. 7.500.000. Ezkalo. (948) 594054.

-**Doneztebe.** Pisu baten berri ematen da. Sukalde ekipatua, propa- no kalefakzioa, 3 logela, egongela lurko suarekin, despentsa, bainua eta ganbara. 90m²erabilgarri. 6.500.000 Ezkalo (948) 594054

-**Legasa.** Pisu baten berri ematen da. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bainua. 90 m². 4.900.000. Ezkalo. (948) 594054

LANA

-**Denda batetan edo haurrak** zaintzen egin nahi nuke lan. 16 urte ditut. Tfnoa: 594054

-**Igeltsero laguntzailea** behar da. Doneztebe aldean lan egiteko eta 16 - 19 urtetakoa. 6 hilabetetik 3 urtera- teko kontratua eginen zaio. Tfnoa: 594054

-**Kuadroak, eskulturak eta ko- mikiak** egiten ditut. Tfnoa: 594054

-**Denda batetan edo neskame** egin nahi nuke lan. 20 urte ditut eta kotxea ere badut. Tfnoa: 594528

SALEROSKETAK

-**Udaberrirako bizikleta** baten jabe izan nahi baduzu hemen duzu aukera. Nahiko ongi dago eta merke merkea, 25.000 pztatan. zurea izan daiteke. 631188 Tfnoa.

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Sukalde eta frigorifiko** indus- trialak saldu edo etxerakoez aldatu nahi ditugu. Tfnoa: 637 854

-**Idazmakina elektronikoa** sal- tzen da. CANON markakoa. Intere- satzen bazaizu deitu 631188 telefo- nora.

-**Era guzietako mobleak** erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Tfnoa: 594054

-**Zurgin lanetan** aritzeko, kon- pakta bat erosi nahi dut. Tfnoa: 631188

-**Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenientziako pre- zioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Astebu- rutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauez.

-**Frigorifiko eta labadora** baten beharrean nago. Modernoago bat ero- si eta zaharra non sartu ez badakizu, nik eginen diot lekua. Diru kontua konponduko dugu. Tfnoa. 637796 Patxiz galdetu.

-**Bigarren eskuko altzarien** be- rri ematen da. Egokiak alokatutako pisuak mogleztatzeko. Tfnoa: 594054

-**Akordeoi bat daukat** saltzeko, 96 bajoko Parrot markakoa. Urte batez erabilia eta hagitz ongi dagoe- na. Tfnoa: 515046 Saldias.

DENETARIK

-**Era guzietako mobleak berri-** tzen ditut prezio onean. Nola zaindu behar diren ere aholkatzen dut. Tfnoa: 594054.

-**Tasazioak egiten dira.** Etxeak, baserriak, mendiak, bordak... Ezka- lo. (948) 594054

-**Josteko 5 hariko remalladora** bat, berria bezala dagoena, saltzeko daukat. Informazio gehiago 594381 Tfnoan. Doneztebe.

HARREMANAK

-**S.O.S. premiazko deialdia.** Bidasoa aldeko hiru izar eder itzalt- zear daude zure maitasun faltagatik. Edozein gauetan ikus ditzakezu edozein herriako bestetan edozein txokotan erdi nabarturik. Edo nahi izanez gero, merkatu ttikiaren bidez kontaktatu ere. Sartalde.

ORRIALDEHONETAKO IRAGARKIAK DEBAL- DEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



★	Txori beltza	▼	Eguna	▼	Bustirik	▼		
★	Eman dezagun	▼	Niken hiriburua	▼	★	▼		▼
★	Senar bihurtu	▶						
★	Bokal bikoitza	▶			Nondik atzizkia	▶		
★	Untzi oihala	▼	Bokala		Ez eme			
▶		▼	Gasna	▶	▼			
▶	Jainko egyptiar	▶	Zeruko ura	▶				★
▶	Metalezko ontzia		Eta					
▶	Kolpe hotsa	▶			Bokala	▶	Mila	▶
▶	Lehen mozkorra				Zati bi	▶	▼	
▶			Galdezka	▶	▼			
▶	Emigrante	▶	▼				500	▶
▶	Itxirik						Soldata	
▶	Atzizkia	▶	Iodoa	▶	Bokala	▶	Zilarra	▶
▶	Meatzak		(Errep.) Gorotza		Interjekzio		Lehen biak	
▶			▼	Likido edangarri	▶	▼		
▶	Lehen bokala	▶	▼					

★ Gerra ondoko aizkolari nafarrak

ENBIDO



TRAKTORE ARTIKULATUAK ETA GOGORRAK

20 HP TIK 80 HP BITARTEKOAK



NAFARROA OSORAKO BANATZAILEA

GILLERMO TXOPERENA

IGANTZI - TLFNOA 63 79 95